

## Kultura

Zuberoako Amaren Alabak taldeak kantaldia eskainiko du Berrizko Andikona auzoan, bihar >11



## Johansson eta Vos garaipenaren bila datoz

Ekainaren 12tik 15era izango da aurten Emakumeen Biraren 27. aldia. Parte-hartzaileei dagokienez, onenak etorriko dira. Marianne Vos eta Ema Johanssonek ez diote hitzorduari hutsik egingo. Parte hartuko duten hemezortzi taldeetatik hiru euskaldunak dira >15



Maialen Zuazubiskar.

## Durangaldeko Ezgaitasun Eguna antolatuko dute Elorrion, bihar >3

Geu Be, Asebi, ONCE, Saiatu fundazioa, Gurutze Gorria, Elorrioko txirrindulari elkarteak, Eusko Label eta Elorrioko Udala dira Ezgaitasun Egunaren antolatzaileak. Integrazioa ailegatzeko herritarrak sentsibilizatzea da ekimenaren helburua, Elorrion asteen egindako aurkezpenean azaldu dutenez. 11:00etan jinkana egingo dute, eta, besteak beste, itsutasuna ulertzeko zirkuitu iluna prestatuko dute. Bazkalostea, berriz, Luhartz taldearen erromeriak girotuko du, eta triki-poteoagaz amaituko dute eguna.



 ibaizabal

## HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO ZIKLOA

Aurrematrikula: maiatzaren 27tik ekainaren 6ra

Informazio gehiago: Tel.: 946 215 877 • www.ibaizabalikastola.org • idazkaritza@ibaizabalikastola.org

 ikastolenelkartea

### Durangaldea > 2

Durango eta Iruñea batuko dituen erabakitze eskubidearen aldeko giza katea aurkeztu dute

### Durango > 6

65 etxe kaleratze agindu zituen iaz Durangoko Justizia Epaitegiak

### Iurreta > 9

Eskolak amaitzerakoan Kultur Astea izango dute Maiztegin

### Zaldibar > 8

Hiri Antolamendurako Planaren aurrerapena aurkeztu dute

# Herririk herri

## > DURANGALDEA

### “Giza katera itxaron beharrik gabe esan daiteke dinamika arrakastatsua izaten ari dela”

Erabakitze eskubidearen alde ekainaren 8an egingo den giza katea aurkeztu dute Durangon

#### > JOSEBA DERTEANO

Bederatzi egun falta dira erabakitze eskubidea aldarrikatzea helburu duen 123 kilometroko giza katea osatzeko. Ekainaren 8an izango da, Durango eta Iruñea artean. Martitzenean, Landako Gunearen parean egin zuten aurkezpena, giza katea hasiko den tokian bertan. “Azken txanpan sartuta gaude”, adierazi zuen Angel Oiarbide Gure Esku Dago dinamikako bozeramaileak: “Erabakitze eskubidea aldarrikatuko dugu: herria gara, herritarren garaia da, eta erabakitze eskubidea dugu”.

Ekainaren 8a denbora luzez herririk herri egindako lanaren

irudikapena izango dela adierazi du, eta orain arte egindako bidea azpimarratu zuen. “Giza katera itxaron beharrik gabe esan dezakegu dinamika arrakastatsua izaten ari dela; herririk herri egindako lanari esker hainbat sentsibilitatetako jendea norabide berean ipini da, eta lan horren argazkirik politena ekainaren 8ko giza katea izango da”. Atzo jakinarazi zuten, giza katea betetzeko adina lagun bildu dituzte jada. 50.000 lagunek bat egin dute ekimenarekin.

Giza katearen ostean, bost jaialdi egongo dituzte Durangon, Iruñean, Etxarrin, Lazkaon eta Bergaran. “Denon artean os-



Angel Oiarbide mutur batean eta Zelai Nikolas bestean, giza kate sinboliko bat osatu zuten Durangon 120 lagun artean.

patzeko egun bat izango da”. Durangoko jaialdia Landako Gunean eta bere inguruetan izango da, 14:00etatik aurrera. Durango eta Arrasate arteko giza katean parte hartuko dutenak daude bertara deituta, eta askotariko ekitaldiekin gozatu ahaliko dute.

**Irizpideak eta gomendioak**  
Ekainaren 8an milaka lagun mugituko dira, eta horren aurrean jarraitu beharreko irizpideen eta gomendioen liburuxka banatu dute. Ahal dela, autobusak eta garraio publikoa erabiltzeko eskatu dute, toki

askotan inbutuak sortu daitezkeela aurreratu dute antolatzaileek. 10:00etarako nor bere kilometroan egotearen garrantzia ere azpimarratu dute. Horretaz gainera, errepideko segurtasun neurriak errespetatzeko eskatu dute.

## EH Bildu bozkatuena Europako hauteskundeetan, Durangaldean

EAJ da bigarren indarra, koalizioaren boto kopurutik gertu; PSOEk eta PPK boto asko galdu dituzte

#### > J.D.

Joan zen domekako Europako hauteskundeetan, EH Bilduk lortu du botorik gehien (9.468) Durangaldean. EAJ da bigarren indarra, lehenengo indarretik gertu; 421 bozkatu aldea dago alderdi baten artean.

Espainiako estatuko datu orokorretan gertatu den moduan, Durangaldean ere kolpe handia jaso du PSOEk hauteskunde hauetan. Eskualdeko boto sozialista kopurua erdira jaitsi da, 2009ko Europako hauteskundeekin alderatuz gero.

PPk ere boto galera handia izan du. 1.000 boto galdu ditu.

Hauteskundeetako sorpresarik handiena Pablo Iglesiasen

Podemos alderdi sortu berriak eman du, bai Espainiako estatuan, baita eskualdean ere. Durangaldean 1.625 bozka jaso ditu.

Abstentzioa %49,18koa izan da Durangaldean, orain lau urte baino puntu bi gutxiago. Bizkaian %54,24koa izan da; EAEn %55,46koa; Nafarroan, %53,6koa, eta Espainiako estatuan %54,15koa.

Pablo Iglesiasen Podemos alderdi sortu berriak 1.625 bozka jaso ditu Durangaldean

## 101 etxebako egon dira aurten, neguko aterpean

Neguko aterpearen balantzea aurkeztu dute

#### > MARKEL ONAINDIA

Amankomunazgoak azarotik martxora bitartean etxebakoen zatit eskaini duen neguko aterpean 101 lagun egon dira aurten, iaz baino 22 gehiago. Epealdia amaituta balantzea egin dute, eta horren berri eman

zuten eguaztenean Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidenteak eta Nerea Izarra zerbitzuaren arduradunak. Erabiltzaileen gehiengoa Espainiako estatukoak izan da, etxerik barik eta lotura sozialen faltan hara eta hona dabilen herrita-



Nerea Izarra eta Oskar Zarrabeitia, eguaztenean, prentsaurrekoan.

rra. Eguraldi hotzaren aurrean, batez ere kalean lo egiten dutenei babesleku bat eskaintzeko helburua izan du zerbitzuak.

Azaroaren 25ean ipini zuten martxan zerbitzua Tabirako Errota ostatuan. Hamar lagunentzako gela bat alokatu du bertan Amankomunazgoak, eta horretarako 20.000 euro erabili ditu. Lo egiteaz gainera, salda beroa, gosaria eta dutxa ere hartu ahal izan dituzte. Egundak ere ez da txiki geratu hamar laguneko gela hori.

Durangalde mailako zerbitzua izan arren, etxebako gehienak Durangon agertu direla esan du Zarrabeitia, herri handiena delako. Udaltzaingoak jaso eta bideratu izan ditu aterpetxera, eta han hiru egunegoko baimena eduki dute. Hori bai, Gizarte Ekintzako beharginek etxebako bakoitzaren egoera aztertu dute, eta, behar izan badute, egonaldia luzatu diete.

#### Laguntzaileak:

**BFA DFB** Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

**anboto** komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-Iurreta (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko maiatzaren 30a, 12. urtea - 547. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo eta Nagore Aranburu.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi eta Aritz Palacin.  
**Zuzentzailea:** Jon Ander Urkiaga.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

**> ELORRIO**

# “Ezgaitasuna, sarritan, begiratzen duenaren begietan dago”

Durangaldeko Ezgaitasun Eguna ospatuko dute bihar, Elorrion



Biharko jaialdiaren antolatzaileak, talde argazkian, asteleheneko prentsaurrekoaren ostean.

**> MARKEL ONAINDIA**

Elorriok hartuko du aurtien Durangaldeko Ezgaitasun Eguna bigarren edizioa. Gizarteratzea lortzeko, beharrezkoa izango da herritarrak sentsibilizatzea, Ana Otadui alkateak adierazi lez: “Ezgaitasuna, sarritan, begiratzen duenaren begietan dago”. Bihar, plazara aterako dute ezgaitasuna edo aniztasun funtzionala. Aurkezpenean, Geu Be elkarteko Suzette Amilibiak eta Javier Nuñezek herritar guz-

tiak gonbidatu zituzten jaialdian parte hartzera.

Geu Be, Asebi, ONCE, Saiaitu fundazioa, Gurutze Gorria, Elorrioko txirrindulari elkarte, Eusko Label eta udala bera ibili dira antolaketan. Goizeko 11:00etatik aurrera jinkanetan parte hartzeko aukera egongo da. Batean, esaterako, gurpil aulkiak erabiliko dituzte, eta, beste batean, itsutasuna ezagutu ahal izango da, zirkuitu iluna egongo da-eta. Gainera,

tailerrak eta puzgarriak ipiniko dituzte. Bazkaltzeko paella egingo dute Geu Be elkarteko familiek, Eusko Labelen eta Karlos Ibarrondo sukaldariaren laguntzagaz. Plazako pilotalekuan izango da, eta 250 lagun baino gehiago batuko dira. 12:00etan, postre lehiaketan aurkezten dituzten gozoak dastatuko dituzte.

16:00etan, Luhartzek erromeria eskainiko du, eta, 17:00etan, triki-poteoagaz amaituko dute jaialdia.

# Kanpoko igerilekuetako obrak sabotatu, eta 3.200 euroko kaltea eragin dute

Joan zen eguenean izan zen eraso igerilekuetan

**> M.O.**

“Hori ez da gauzak egiteko modua. Horrela Elorrio suntsitu baino ez da egiten”. Ana Otadui alkateak (EAJ) eman zuen eguen gaueko erasoaren berri joan zen barikuan. Baldosak, makina baten kristala eta obretako materiala apurtu zituzten ezezagunek, eta 3.200 euroko kaltea sortu zuten. “Minduta eta oso desengainatuta gaude”, esan zuen alkateak. Kanpoko igerilekuena proiektu estrategikoa

dela adierazi zuen, “bai gobernu taldearentzat, bai Elorrioko herritarrentzat”. Otaduien ustez, oporraldia kanpoan pasa ezin dutenei disfrutatzeke aukera bat emango die proiektuak.

Kritikagaz batera, gobernu taldearen ekimena berretsi, eta aurreikusitakoa beteko dutela esan zuen: “Uda honetan igerilekuak zabalik egongo dira, eta elorriar guztiok bertan gozatzeko aukera ezin hobea edukiko dugu”.



Igerilekuetako obretan darabilten makina bat, kaltetuta.

## Izen-ematea

maiatzak 27tik ekainak 6ra

**>> Oñati gestio heziketa****MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

## Eskaintza akademikoa

**Oñati Gestio Heziketa**

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

**MGEP**

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[info.enpresagintza@mondragon.edu](mailto:info.enpresagintza@mondragon.edu)  
**943 71 80 09**

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
**943 73 97 65**

**> ABADIÑO**

## 2014rako udal aurrekontua iazkoa baino %11 murriztagoa izango da

Jeltzaleen babesagaz onartu du gobernu taldeak aurrekontu proposamena



Bilduko bost ordezkariak, aurrekontu proposamenaren kontrako bozka ematen.

**> ITSASO ESTEBAN**

Antonio Serrano Ogasun zinegotziak azaldu zuenez, azken urteetakoak bezala, "krisi sasoirako aurrekontua" da onarturikoa. Iazkoagaz alderatuta, %11 murriztagoa da 2014rako Abadiñoko

udal aurrekontua (8.562.000 eurokoa). Aurrekontua adostu duten jeltzaleek eta udal gobernu independentee nabarmendu dute, hori horrela izanda ere, murrizketek gizarte laguntzetan eraginik ez izatea lortu dutela.

Jose Luis Navarro alkateak azpimarratu du udaleko sail batek ere ez duela murrizketarik jasan. Kontrara, Gizarte Ekintza, Hezkuntza, eta Euskara eta Gazteria sailen diru atalak handitu egin dituztela adierazi du.

**> ZORNOTZA**

## Kalez kale magia egiten arituko da Kidam magoa, ekainaren 6an

**> JOSEBA DERTEANO**

Asier Kidam magoak *Hurbileko magia* emanaldia eskainiko du ekainaren 6an, barikuan, 20:00etatik aurrera, Zornotzako kaleetan. Tomasa taberna ingurutik abiatuta, kalerik kale ibiliko da magia trukoak egiten. Nañon Zorrontzan Euskaraz taldeak antolatutako ekimeanean, Beñat Ugartetxea eta Igor Elortza bertsolariak ere parte hartuko dute magia emanaldia giroten.

Aurreko aldietan herrian arrakasta handia lortu duen ekimena da *Hurbileko magia*, eta oraingoan helduentzat arituko da Asier Kidam magoa. Jendartean ibiliko da esku-jokoak egiten, eta ondo-ondotik ikusteko aukera izango dute zornotzarrek.

## Asturiasko kultura gertutik ezagutu ahalko da bihar

Musika emanaldiak eta hitzaldiak antolatu dituzte

**> J.D.**

Ixuxú, Asturias-Euskal Herria elkartearen bidez, Zornotzako eta Asturiasko Pola de Llenako udalek bata bestearen kultura, tradizioa eta sorkuntza lanak ezagutzeko kultur jardunaldiak antolatu dituzte. Orain hiru aste zornotzarrak Asturiasera joan ziren, eta bihar, berriz, Zornotza izango da ekintzen erdigune.

Asturiasetik etorritako Gaites Guestia taldearen gaita doinuek emango diote hasiera kultur trukeari, 13:00etan, Zelaieta parkean. Hurrengo ekintza biak Zelaieta zentroan izango dira. Lehenengo, 17:30etik aurrera, Asturiasko hizkuntza normalizazioa zer egoeratan dagoen azalduko du Pablo Suarezek, Sagardoaren eskualdeko Amankomunazgoko hizkuntza nor-

maliziaziorako zerbitzuaren arduradunak. Ondoren, 18:30ean, Eflen Alvarezek *Suena'l Camin* izeneko dokumentala ikusteko aukera egongo da.

Musikagaz esango diote agur egunari Zelaieta parkean. 21:00etan, Asturiasko Vrienden folk taldearen doinuek dantzarako gonbita egingo dute, eta, 22:30ean, Eromen talde zornotzarrak erromeria eskainiko du.

**Asturiasen "oso harrera ona"**

Orain hiru aste Asturiasko Pola de Llena herrira egindako bisitan "oso harrera ona" egin zieten gogoratu du David Murillo Zornotzako Gazte Informazio bulego arduradunak: "Hurrengo urtean berriro ere errepikatzen moduko egonaldia izan zen".

**> OTXANDIO**

## Txakur kaken arazoa zelan konpondu proposatu dute

**> J.D.**

Eskolako jolaslekuan zein pilotalekuan txakurren kakak agertzen direla-eta, kezkatuta daude eskolan. Eskolako agenda lokalaren barruan gaztetxoek urte osoan landutako gaietako bat, hain zuzen, horren ingurukoa izan da. Orain hamar egun udal ordezkariak batzartu ziren, eta arazoa aurrez aurre helarazi zieten bertan. Arazoa konponzeko proposamen batzuk ere zerrendatu zituzten: *pipicanak* ipintzea edo kakak jasotzeko plastikoa duen ontzia jartzeko, esaterako; baita berdeguneetan kartelak ipintzea ere, eskolako gazteek sortutako mezuekin. Udal ordezkariak kartelak ipintzeko asmoa erakutsi dute, eta webgunean ere ipini dute ohar bat txakurren jabeen gizalagezko jokabidea eskatzeko.

Eguazteneko prentsaurrekoan egin zuen Jose Luis Navarro alkateak onarturiko aurrekontuaren gaineko irakurketa. Abadiñoko Independentee taldeak aurrekontu proposamena adosteko eta onartzeko EAJren babes daukan hirugarren urtea dela gogora ekarri zuen alkateak. "Publikoki eskertu gura diegu elkarrizketarako eta akordiorako daukaten jarrera", esan zuen. Hain zuzen, aurtun, jeltzaleekin adostu dute 55.000 euro Correos zegoen lokala atontzera bideratzea, Zelaietako jubila-tuen elkarteari lagatzeko, eta 27.000 euro, aldiz, eskalada horma bat eraikitzeke erabiltzea. Proiektuok gauzatzen abuztua baino lehen hastea gura duela adierazi du Navarrok.

Aitor Azueta Bilduko bozeroaleak, aldiz, gobernu taldeak "Bildu aurrekontuen lanketarik baztertu" duela kritikatu zuen martitzeneko osoko bilkuran. Bilduren ustez, udal aurrekontu honek "ez du proiektu bat islatzen: epe motzera begira egindakoa da, eta etorkizunerako perspektibarik bakoa".

**> GARAI**

## 28 umek eman dute izena aurtengo udalekuetarako

**> M.O.**

Garaiko Udalak urtero antolatzen ditu umeentzako udalekuak, eta aurtengo ediziorako 28 ume apuntatu dira. Emaizta arrakastatsua da, udalak informatu duenaren arabera, sekula baino gehiago apuntatu dira eta. Guztiak dira herrikoak edo bertako talderen batean dabil-tzanak.

Ekainaren 10a izango da aurtengo udalekuetako lehenengo eguna. Hiru astez garatuko da jardunaldia, eta tarte horretan hainbat ekintzetan parte hartu ahal izango dute Garaiko haurrek. Goizez izango dute aisialdi eskaintza horretaz aprobetxatzeko aukera.

Uztailaren 18an emango diote amaiera udalekuetako eskaintzari.

**> ATXONDO**

## Sakabanaketa salatzen duen banderola eztabaidagai

**> J.D.**

Udaletxeko balkoian euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzen duen banderola kentzeko agindua hartu du udalak epaitetik. Carlos Urquijo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak Banderen Legea oinarri hartuta ipinitako salaketako bat izan da Atxondokoa. Udalak asteon kendu du banderola. Rosa Elizburu alkateak azaldu duenez, "sententziak dio udal bati ez dagokiola horrelako banderak erostea eta bere eraikinetan ipintzea. Hori da kentzeko eskatzeko arrazoiak". Sententzia irakurri ostean, hamazazpi herritar prest agertu dira banderola beraiek erosi eta udaletxean ipintzeko. Eskaera hori astelehenean egingo den udalbatzarrean bozkatuko dute.

**MATERIAL DE CONSTRUCCION**  
**MACOBER**

**ERAIKUNTZARAKO MATERIALA**

**BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA**  
Eitua industriagunea, 66  
Tel./Faxa: 946 827 890  
48240 Berriz (Bizkaia)  
[macober@movistar.es](mailto:macober@movistar.es)

**Zeramika eta gresa**

**Goizane Azpiri Maurtua**  
Naturopata kolegiatua, 3.515 zk.

**Eskuzko teknikan eta psikofisikoetan aditua**  
Kontrakturen aurkako masajea  
Drainatze linfatikoa  
Osteopatia  
Teknika kraneo-sakrala eta erraietako teknika  
Estetika naturala: aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak

**Etxez etxeko zerbitzua**  
(aurretiko hitzordua)

San Ignazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599



# Lanerako Langile Trebatuak

## ZIKLO GUZTIAK EUSKERAZ ETA GAZTELERAZ

### ESKAINTZA OSOA

#### GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrialia

#### ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

### ESKAINTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

### SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

### ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

## DATAK

**Aurrematrikula**  
maiatzaren 27tik  
ekainaren 6ra

**Matrikula**  
uztailaren 9tik 16ra

Tel: 94 673 02 51  
e-mail: [info@fpzornotza.com](mailto:info@fpzornotza.com)  
[www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)



**> DURANGO**

## 65 etxe kaleratze agindu zituen iaz Durangoko Justizia Epaitegiak

Durangaldea eta Arratia barrutiko kaleratzeen datua eman du EH Bilduk



Durangoko epaitegiak iaz agindutako kaleratzeek zeresana eman dute asteon.

**> MARKEL ONAINDIA**

Durangaldeko eta Arratiako herriei zerbitzua ematen dien Durangoko Justizia Epaitegiak 65 etxe kaleratze agindu zituen iaz. 39 jabetzako etxeak ziren, eta 25 alokairukoak. Horietatik bat Eusko Jaurlaritzako Bizigune alokairu programakoa zen. Barruti osoari lotutako datua da

65 kaleratzeena, baina ez dago herrika sailkatuta. EH Bilduk (Bildu eta Aralar) eman zuen datu ofizial hori astelehenean, etxe kaleratzeen inguruan eskainitako prentsaurreko batean. Izan ere, martitzenean mozio bat aurkeztu zuten udalbatzarraren, gaiagaz lotuta. 2012an bi moziotan hartutako konpromi-

soak betetzea eskatu gura zioten udalari.

2012an etxe kaleratzeak saihestea bultzatzeko zenbait neurri onartu zituen udalbatzak. Mozio bat M15 Durangaldeak sustatu zuen, eta bestea Bilduk, PSE-EEk eta Aralarrek. Kaleratzeetan ez parte hartzea, prozedurak aurrera errotan

dituzten banketxeetatik dirua ateratzea, banku horien jarrera argitaratzea, eta kaleratuentzako harremanetarako telefono bat eta helbide elektronikoa bat ipintzea ziren konpromisoetako batzuk. “Denbora pasa da, eta ez da ezer egin”, azaldu zuen Eider Uribe (Bildu). Dani Maezturen arabera, udalak ez zeukan kaleratzeen berri, eta EAJ kritikatu zuen: “Larria iruditzen zaigu udalak ezer ez jakitea”. Udalarren eta Eusko Jaurlaritzaren artean hitzarmen bat sinatzea ere proposatu zuten mozioan, eremu publikoan izaten diren kaleratzeen inguruko informazioa aurretik bidaltzeko eskatzeko.

Goiztidi Diazek (EAJ) adierazi zuen kaleratuentzako telefonoa eta helbidea ezarrita daudela, eta aurreratu zuen ekainean hasiko direla lantzen pertsona horientzako larrialdi etxeak zelan kudeatu.

Edozelan ere, mozioa babestu zuten jeltzaleek, baita PSE-EEk ere. Gainera, sozialistek Eusko Jaurlaritzari egindako eskaera bat ere txertatu zuten: eremu publikoko alokairuak behetik berrikusi, eta sarrerren %30 ez gainditzeko neurriak hartzea. Bestalde, Pilar Riosek gogoratu zuen udal aurrekontuan 144.000 euroko partida bat gordeta dagoela kaleratuei laguntzeko, oraindik erabili barik dagoena.

## Haurreskolarako zegoen diruagaz Antso Estegiz kalea eraberrituko dute

Landakoko haurreskolarako 815.000 euro zeuden gordeta; diru horri beste erabilera bat emango diote

**> M.O.**

Landako ikastetxean haurreskolarako eraikin berri bat egitea aurreikusitako udalak duela zenbait urte, eta, horretarako, 815.000 euroko diru partida bat gorde zuten. Baina gaur egun horren beharrik ez dagoela-eta, dirua beste proiektu batzuetarako erabiltzea erabaki du. Obra handienetako bat Antso Estegiz kalearen eraberritzea izango da, 300.000 euro balioko duena.

Martitzeneko batzarrean onartu zuten kreditu aldaketa EAJk, PSE-EEk eta PPK; Bildu eta Aralar abstenitu egin ziren. Inbertsioa jaso duten proiektuetako asko PSE-EEk udal aurrekonturako egindako ekarpenak dira, Pilar Ríos bozeroalearen arabera. Antso Estegiz kaleak “urgentziazko eraberritze bat” behar duela uste du. Batez ere irisgarritasun aldetik egingo dituzte konponketak.

Bestalde, hegoaldeko saihesbidearen zati bat garatuko dute 270.000 euroguz. Antso Estegiz eta Urki kaleak batzen diren lekutik Montorretarainoko zatia,

hain zuzen. Hauek dira beste ekimenak: Frai Juan Zumarraga eta Landako etorbideetako argiteria hobetzea (80.000 euro); larrialdietako hiru etxe hornitzea (32.000); Merkatu plazako instalazio elektrikoaren berritzea (62.000); administrazio elektronikoen lanak (40.000); eta Landakoko lonjak berritzea (30.000).

Bildu eta Aralar ez ziren ados agertu inbertsioak egiteko moduaguz. Eider Uriberen (Bildu) iritziz, soberakineko dirua zelan gastatu herritarrekin landu beharko litzateke. Dani Maeztuk (Aralar) ere eztabaida soziala eskatu zuen. Gogoratu zuen herrian ez dagoela kultur etxerik, ludotekarik eta gaztelekurik.

Goiztidi Diazek (EAJ) nabarmendu zuen “haurreskolararen beharrezana beteta” dagoela, 42 plaza edukita, datorren ikasturtean 31 ume hasiko direlako. Jeltzaleek eta sozialistek, beharrezana sortuz gero, horrelako proiektu bat bultzatzeko konpromisoa hartu zuten. Uriberen ustez, “arazoa izango da etorkizunean dirurik ez edukitzea”.

## Bideo lehiaketa egin dute, erosketetan euskararen erabilera sustatzeko

Epaimahaiaren saria Ainhoa Gastonek irabazi du

**> M.O.**

Bizi Euskeraz bideo lehiaketa garatu da Durangon, Orue eskolak eta ITG taldeak antolatuta. 2011z geroztik zenbait ekintza egin dituzte erakunde horiek, euskararen erabilera eragiteko asmoz. Komertzioetako euskaraz egitea bultzatu gura duen *Salerosketak be euskeraz* zozketa izan da garrantzitsuena. Erosketen ildo horretan sakontzeko egin dute bideo lehiaketa.

Martitzenean egin zuten sari banaketa. Ikusleen saria Heidi Otaduyk eta Yago Mateok ira-

bazi dute 258 botogaz, eta epaimahaiarena Ainhoa Gastonek. Epai bat Baleuko ekoiztetzeko Eduardo Barinaga izan da, eta partaideen ahalegina eta originaltasuna nabarmendu ditu. Irabazleek iPad bana jaso dute.

ITGko Endika Gandariasek azaldu du azken urteetan euskararen jakintza igo arren, erabilera ez dela gauza bera gertatu. Horregatik antolatzen dituzte ekimenok. Udalarren partez, Mari Jose Balierekin esan du bat egiten dutela komertzioetako euskaraz sustatzeko dinamikagaz.



Lehiaketaren irabazleak, antolatzaileekin batera, udaletxean.

**> IZURTZA**

## Bigarren eskuko produktuen azoka egingo dute domekan

**> JOSEBA DERTEANO**

Domekan bigarren eskuko produktuen azoka Izurtzan. 11:00etatik 14:30era 27 postu ipiniko dituzte pilotalekuan.

Iaz 23 postu izan ziren, eta horietatik 21ek aurten errepikatuko egingo dute; gainerako sei postuak berriak izango dira. Lehenengoz etorriko diren postuetako batek bigarren eskuko bizikletak salduko ditu, eta beste batek papera oinarri duen artisautza lantzen du. Horiekin batera, zestak, nagusientzako zein umeentzako arropa, liburuak eta oinetakoak egongo dira eskuragarri, esaterako. Zortzi postu izurtzarrek beteko dituzte, eta, besteak beste, Zalla, Mungia, Bermeo eta Bilbotik etorritakoak ere izango dira.

Iazko lehenengo aldiak izandako “harrera onaren” ondoren, aurten berrituko bigarren eskuko produktuen azoka antolatzea erabaki du Cristina Mora izurtzarrek: “Bisitariak zein postuetan egon zirenak pozik geratu ziren azokagaz; horregatik antolatuko dugu aurten ere”.

**> MAÑARIA**

## Garagardo eta punk jaia egingo dute hurrengo zapatuan

**> M.O.**

Garagardo eta musika. Horiek dira hurrengo zapatuan, ekainaren 7an, Mañarian ospatuko den jaialdiaren osagaiak. Argi adierazten du jaialdia bataiatzeko erabili duten izenak ere: *Punk & Drunk Fest*. Azoka, bazkaria eta kontzertuak egongo dira, baita Alemaniako garagardo ere. Lokal 9 kolektiboak, Black&White fanzineak eta Pots&Crime ekoiztetxeak elkarlanean antolatu dute egitaraua.

11:00etan zabalduko dute azoka. Diskoak, biniloak eta antzeko produktuak egongo dira ikusgai. 14:30ean herri bazkarian batuko dira, plazan. Sei euroan eskuragarri daude txartelak hurrengo tabernetan: Mañariko U2n eta Errekondon; Durangoko Intxaurren eta Arkarazon; eta Abadiñoako Abarketeruena tabernan. Arratsaldean kontzertuak izango dira Errekondo tabernan, Kruders eta Kaleko Urdangak taldeekin. Gauez, 22:30ean, Rat-Zinger, Suzio 13 eta Tres41 taldeek eskainiko dute emanaldia plazan. Amaitzeko, DJ bat egongo da U2 tabernan.

# Naia Gorroño hortz klinikan profesionaltasuna eta gertutasuna aurkituko dituzu

Naia Gorroño dentistaren lantaldeak zerbitzu integrala eskaintzen du; gune berean espezialitate guztiak eskaintzen ditu Durangoko zentro berriak

## > JONE GUENETXEA

Naia Gorroño dentistak irailean zabaldu zuen kontsultategia Durangoko Askatasun etorbidean. Erabiltzaileen aldetik harrera oso ona izan du zentro berriak. Kontsultategi honetako profesional taldeak zerbitzu integrala eskaintzen du, eta odontologia arloko azken teknikekin jarduten du lanean.

## Zer ezugarri ditu Naia Gorroño zentroak?

Espezialitate guztiak zentro berean biltzea da gure ezaugarri nagusia. Hainbat espezialitateko lau profesionalak dihardugu lanean, beraz, beste zentro batera joan barik, zerbitzu guztiak bertan eskaintzen ditugu. Gainera, adin guztietako pertsonak artatzen ditugu.

## Ortodontzia arloan azken berrikuntzekin diharduzue.

Bai, *brackets*ak dituen ortodontzia tradizionalaz gainera, alineadore transparentea duen

ortodontzia ikusezinarekin lan egiten dugu. Azken horrek hainbat abantaila ditu. Alde batetik, ez da mingarria. Eta, bestetik, ez denez nabaritzen aldean darrazuzula, jende helduaren artean arrakasta handia izan du.

## Azken urteotan, inplanteen arloan garapen handia gertatu da. Zer zerbitzu eskaintzen duzue arlo horretan?

Kirurgia guztia klinikako lantaldeko profesionalok egiten dugu. Nabarmentzekoa da aukera dagoela, kasuak kasu, pazienteak egun berean bertan hagin finkoekin etxera joateko. Gainera, aho guztiko errehabilitazioak inplanteen bidez egiten ditugu.

## Zein aseguru etxerekin egiten duzue lan?

Santa Lucia, Azkaran eta Dentyred aseguru etxeekin dihardugu lanean. Era berean, haur eta gazteei zuzendutako Osakidetza Padi programaren barruan ere bageaude.

## Dentistarenera ahoko arazoren bat dugunean joatea da ohikoena, baina hagin itxurari gero eta gehiago erreparatzen diote kontsultara doazenek?

Bai, hagin itxura ere garrantzitsua da paziente askoren ustez. Aurretik aipatu dugun ortodontzia gardena adibideetako bat da. Haginen zuritze tratamenduek ere geroago eta harreara hobea dute. Ildo horretatik, udaberrian promozio berezi bat dugu. Zuritze tratamenduagaz hortzetako eskuila elektrikoa oparitzen dugu.

## Hortz klinikan ordutegi zabala duzue.

Pazientearen ordutegira moldatzen gara, bezeroaren erosotasunerako. Astelehenetik barikura, 09:00etatik 13:30era eta 15:30etik 19:30era dihardugu lanean. Eta, larunbatetan, aurretik hitzordua hartuz gero, bezeroak artatzen ditugu. Gainera, abuztuko lehenengo eta azken astean ere klinika zabalik egongo da.



Naia Gorroño, dentista.




**Hertz Klinika**  
Naia Gorroño Arrizabalaga

Askatasun etorbidea, 2C, behea  
48200 Durango

Astelehenetik ostiralera:  
9:00 - 13:30 / 15:30 - 19:30

946 570 175 - 635 218 838  
[www.naiahortzklinika.com](http://www.naiahortzklinika.com)



**> ZALDIBAR**

## Hiri Antolamendurako Planaren aurrerapena aurkeztu dute udalean

Parte-hartze prozesuaren ondorioetan oinarrituriko planaren aurrerapena aurkeztu zuten martitzenean



Teknikariak, aurreplanaren inguruko azalpenak ematen. D.Zubizarreta.

**> ITSASO ESTEBAN**

*Zaldibar eitten!* parte-hartze prozesuan jasotako iritzi eta proposamenen datu bilketa eta azterketa egin dute azken hila-beteetan teknikariek, eta, martitzenean, beraiek eman zuten osatutako aurreplanaren inguruko informazioa. Udaletxean aurkeztu zuten Hiri Antolamendurako Planaren aurrerapena.

Ekainean, udaletxeko sarrean egongo da planaren dokumentazio guztia, nahi duten herritarrek kontsulta dezaten: erakusketa publikoan egongo da uztailearen 12ra arte. Herritarrek euren ekarpenak egin, eta teknikarien aholkuntza azalpenak entzuteko aukera izango dute udaletxean bertan.

Ekainean, udaletxean egongo da erakusgai aurreplanaren inguruko dokumentazio guztia

Arantza Baigorri alkateak azpimarratu duenez, eskaintza honekin ohiko erakusketa publikoetan baino partaidetza handiagoa lortu gura du udalak.

Ekainaren 2an, 18:00etatik 20:00etara, Ingurugiro eta Mugikortasun sailtako teknikariak eta zinegotziak egongo dira bertaratzen diren herritarrei azalpenak ematen eta dauzkaten zalantzak argitzen; ekainaren 11n, ordu berean, parte-hartze arloa daramaten teknikariak eta zinegotziak egongo dira; eta hirigintza arloko teknikariak eta zinegotziak ekainaren 19an, 18:00etatik 20:00etara.

**Esku-hartze handirik ez**

Ingurugiroari, sozioekonomiari eta hirigintzari dagozkion herri helburuak jaso dituzte atzo aurkezturiko Plan Orokorren aurrerakinean. "Esku-hartze handien orde, hainbat arlotan eraldaketa handia ekarriko duten ekintza txikiak" proposatzen ditu aurreplanak. Besteak beste, herriko sarreran aparkaleku bat egitea, aisialdirako ibilbideak atontzea, nekazari berriak hartu ahal izateko lurzorua eskaintzea, landa auzoen eta nukleoaren arteko oinezkoentzako komunikazioak eratzea, base-riren birgaitzea bultzatzea eta segregazioa malgutzea, etxebizitzaren hutsen erabilera bultzatzea, eta Alde Zaharra eta San Andres auzoa birgaitzea, adibidez.

**> BERRIZ**

## Andikoako jaietan auzoko animalien erakusketa

Ganadua uda pasatzera Oizera igo aurretik, azoka txiki bat egingo dute domekan, bertsolariek girotuta

**> AMAIA UGALDE**

Duela urte batzuk egin zuten antzera, Andikoan bertako animalien erakusketa egingo dute, domeka goizean. Ganadua Oizera joango da laster, uda eta udazkenaren zati bat pasatzera, eta, horren aurretik, gorantza zer joango den erakusteko azoka txiki bat egingo dute.

Bihar, 19:30 inguruan hasiko dituzte Andikoako jaiak, Donien Atxa altxatzeaz batera. Ostean, 20:00etan, Zuberoako Amaren Alabak taldearen kantaldia izango dute elizan. Zuberoako abestiak kantatzen dituzten taldeak, mikrofono barik. Seikote batek osatzen du taldea, eta Berrizera eurretako lau etorriko dira kantaldia eskaintzera.

Domekan, 11:00etan, meza edukiko dute, eta, gero, Iremiñe dantza taldearen dantza em-

naldia. Goiz osoan ipiniko dute auzoko animalien erakusketa. Helburu nagusia erakustea da: "Traturako aukera egon daiteke, asto edo oiloetan, adibidez, baina erakustea da batez ere asmoa". Azoka girotzen Xabier Amuriza eta Miren Amuriza bertsolariak ibiliko dira.

Zapatuan, 20:00etan, Zuberoako Amaren Alabak taldearen kantaldia izango dute

Arratsaldean, 17:00etan, asto-probak izango dituzte. Auzoko Zubetza baserriko asto bat Zegotitagane elkarteko asto baten kontra lehiatuko da. Ondoren, bolo lehiaketa egingo dute.

## Bigarren eskuko Berriztu azoka egingo dute zapatu honetan

**> A.U.**

Zapatu arratsaldean bigarren eskuko Berriztu azoka egingo dute; eguraldi ona bada, udaletxeko parkean, eta, bestela, probalekuan. Parte hartu gura izan dutenek eguenera arte eduki dute izena emateko aukera. Arropak eta gailuak eroan, eta trukatu, saldu edo oparitu egingo dituzte. 15:00etatik 20:00etara ipiniko dituzte postuak.

Azoka amaitu aurretik, 19:00etan, Bartzelonako Morgan taldeak kontzertua eskainiko du. Esperimentazioan dabil taldea, eta "pop afonikoa" egiten dutela diote taldekideek.

Azokako partaideek bost euro ordaindu dituzte parte hartzeagatik, eta diru hori antolakuntzarako eta musika taldea ordaintzeko izango dela azaldu dute antolatzaileek.

## Zeramika Astea antolatu du Berrizko Lupetza elkarteak

**> A.U.**

Astelehenetik aurrera zeramikagaz lotutako hainbat ekintza egongo dira Berrizen, Lupetza elkartearen eskutik. Astelehenean bertan, Berrizko zeramika eskolako erakusketa inauguratuko dute. Eguaztenean, zeramika-paperrari eta zeramika gaineko inpresioei buruzko ikastaroa eskainiko dute zeramika eskolan.

Barikuan, 17:00 aldera, kalea aterako dituzte tornuak, eta ume eta helduentzako tailerrak egingo dituzte Olakueta plazan. 19:00etan, raku teknika japoniarren erakustaldia egingo dute; labe berezi bat ekarriko dute, eta metodo horren bidez, kolore biziko piezak sortuko dituzte. Eta, zapatu goizean, Elosuko (Legutio, Araba) zeramika museora joango dira. Interesatuak 619 492 061 telefonora deitu dezakete.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

EIDER URIBE

Bildu

**Etxe kaleratzeak**

2013. urtean, Durangoko epaitegian 39 etxe kaleratze gauzatu ziren jabetzazkoak ziren etxebizitzetan, eta 26 alokairuzkoetan, beste hainbeste prozedimendu judizial zabalik dauden bitartean. 2012-2013 urteetan, 23 desjabetze BBK-Kutxabanken eskutik heldu dira, etxe kaleratze gehien aurrera eraman dituen banketxea izanik gure eskualdean. Bitartean, Durangoko Udalak banketxe horrekin bakarrik lan egiten jarraitzen du, inolako baldintzarik ezarri gabe. Ez gara nekazten banketxeen esku dauden etxe hutsak alokairu sozialera bideratu behar direla esateaz, baina desjabetzeak ekiditeko ere lan egin behar dela diogu.

2012an, etxe kaleratzeen inguruko mozio bi atera ginen aurrera; bata M15 Durangaldeak aurkeztua, eta bestea Aralarrek, Bilduk eta PSEk. Gobernu taldeak ez ditu bertan hartutako konpromisoak bete, eta etxe kaleratzeak jarraitu egin dute gure herrian. Udalak ez du ezer egin desjabetzeak eman diren edo ez jakiteko; izan ere, urte honen hasieran jakin izan dugu alokairu publikoko etxebizitzetan ere kaleratzeak eman direla. Bizigune programan, 2013an, Durangon, kaleratze bat izan genuen, eta 2014an jadanik kaleratze bi gauzatu dira. Horri buruzko galdera egitean, udalak ez zeukan informaziorik, tamalgarria benetan. Etxe kaleratzeak ematen ari dira momentu oro parke pribatuan zein publikoan.

Horregatik, martitzeneko osoko bilkuran 2012an udalbatzak hartutako konpromisoak betetzeko deia egin genion gobernu taldeari, hitzartutakoa bete dezala gizarteari laguntzeko. Bada garaia etxe kaleratzeekin bukatzeko, eta gehien sufrizten duten herritarrentzat lan egiten hasteko.

**urtiaga**

Proiektu eta Erreformak, S.L.  
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGO ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea, 3 · Tel.: 946 814 474 · Faxe: 946 215 374  
E-maila: urtiaga@urtiaga.info · MATIENA-ABADIÑO

clínica dental hartzklinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK



Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

**> IURRETA****Maiztegin kirol jardunaldiak izango dituzte asteburuan****> A.U.**

Maiztegin guraso elkarteak antolatuta, kirol erakustaldia egingo dute eskolako umeei eta gurasoek. Gaur, 17:00etan hasiko dituzte jardunaldiak, eta patinajea, herri-kirolak eta gimnasia erritmiko erakustaldiak egingo dituzte eskolako aterpean.

Bihar, eguna hasteko, kroa egingo dute ikasleek eta gurasoek, 09:45ean hasita. 11:00 aldera areto-futbol eta saskibalo partiduak jokatuko dituzte. 12:30ean, ninjutsua praktikatuko dute aterpean, eta, 13:00etan, euskal dantzak egingo dituzte.

Datorren astean, zuzendaritzak antolatutako Kultur Astea izango dute Maiztegin, eta ekainaren 6an eskolako jaia.

**Ariketa fisiko egiteko hamabi aparatua Ertzillan****> A.U.**

Bidegorriko ibilbidean bertan, Odi-Bakar enpresaren ondoan ipini dituzte ariketa egiteko aparatua. Bereziki pertsona nagusiei zuzendutako hamabi makina dira, eta 15.000 euroko kostua izan dute.



Ertzillako gunea.

**> MALLABIA****Kantabriar mendikateko hartzei buruzko berbaldia**


Fernando Garitagoitiak eskainiko du hitzaldia



Mallabiko kultur etxean hartuko dituzte hartzak hizpide.

**Eskolak amaitzerakoan, Kultur Astea izango dute umeei eta gaztetxoek**

Hainbat arte eta kirol modalitate probatu ahalko dituzte ekainaren 23tik 27rako astean

**> AMAIA UGALDE**

Iurretako Udalak egitaraua antolatu du hainbat elkartegaz elkarlanean, eskolak amaitu eta udako tailerrak hasten diren tarteko asterako. Adibidez, eskulanak, antzerkigintza, hainbat dantza modalitate eta zirkoa praktikatzeko aukera edukiko dute Ibarretxe kultur etxean, ekainaren 23tik 27ra.

Esperimentatzeaz gainera, lehenengo jolasak eta taldean jolastea indartu gura dituztela azaldu dute Pili Jiménez kultur teknikariak eta Iñaki Totorigaguena alkateak. Egitarauan Iurretako eta Durangoko hainbat elkartek parte hartuko dute: Kimuak aisialdi elkarteak, Anderbide emakume elkarteak, L'Atelier dantza akademiak, GertaSportek, Olaburu pilota elkarteak eta eskulanetarako Kemy akademiak.

Goizez eta arratsaldez izango dituzte tailerrak, eta doakoak dira. Batzuetan izena eman behar da, materiala behar denez, taldeak egin behar dituztelako;

esaterako, *fofucha*, antzerki eta zirko tailerretan.

Ekintzen artean, San Juan bezperan, lehenengo jolasak egingo dituzte plazan. Sokasaltoan, txapa jokoan eta kaniketetan jolastuko dute, besteak beste, eta, gero, txokolatada eta erromeria izango dituzte. Ekainaren 27an, berriz, Olaburu pilotalekura joango dira, eta pilota, pala eta zesta-punta tailerra izango dute Durangaldeko hainbat pilotari ezagunekin: Pablo Berasaluzegaz, Ibai Zabalagaz, Mikel Urrutigaz eta Alexis Apraizegaz.

**Kultur etxean, terraza**

Tailerrez gainera, kultur etxearen kanpoaldera ludoteka aterako dute, 09:30etik 13:00etara. Karpa baten azpian mahai-jokoekin jolasteko eta irakurtzeko gunea egongo da. Kultur Astean egoteaz gainera, txoko hori zutaillean ere egongo da kultur etxearen ondoan, goizetan. Jostailuak maileguz hartzeko aukera edukiko dute iurretarrek, liburutegiko karnetarekin.

**> JONE GUENETXEA**

Mallabiko kultur hamabostaldiak aurrera darrai. Domekan, gimnasia erritmiko erakustaldia izango da udal pilotalekuan, guraso elkarteak antolatuta. 11:30ean, berriz, Zaldibarren Luz Zalduegi mallabitar albaiariari omenaldia egingo diote. Luz Zalduegi Euskal Herrian lizentziatu zen lehenengo emakume albaiaria izan zen.

Ekainaren 5ean, berriz, Fernando Garitagoitiak *Kantabriar mendietako hartzak* berbaldia eskainiko du, 19:00etan, kultur etxean.

Egitarauak ekainaren 6an jarraipena izango du Biharko Izarrak txapelketaren finalarekin, 21:15ean, pilotalekuan.

Euskararen aldeko areto-futbol maratona antolatuko du aurten ere Mallabia FTk.

**> DURANGALDEA ASTEON****'Berria' doan banatuko dute 15 egunez Uemako herrietan**

**EUSKARA** > Irakurle berriak erakartzeko eta euskararen normalizazioan eragiten jarraitzeko, *Berria* egunkaria hamabost egunez doan banatzeko kanpaina jarriko dute martxan Uemako herrietan. Eskaria egiten dutenek ekainaren 3tik 15era jasoko dute *Berria*. Atxondo, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Otxandio dira Uemako kide diren Durangaldeko herriak. Eskaera egiteko 943 304 345 telefonora deitu behar da, edo [harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info) helbide elektronikora idatzi.

**Ikastaroak doan Akin, lehenengo urteurrena dela-eta**

**IKASTAROKA** > Aki brikolaje dendak bere lehenengo urteurrena ospatzen dihardu Durangon. Urtemugaren harira, brikolaje tailerrak antolatu dituzte aste osoan. Gaur, 17:00etan, *Igerilekua nola prestatu eta nola mantendu* tailerra eskainiko dute. Bihar, maiatzaren 31n, 12:00etan, berriz, *Kristalak erraz nola garbitu* *Kärcher erabilia* tailerrean parte hartzeko aukera eskainiko dute. Ikastaroak doan dira. Ez da aurretik izenik eman behar.

**San Faustoko auzokide baten kexari erantzun dio udalak**

**ERANTZUNA** > Durangoko Udalak Uda Topera kanpainari buruzko informazioa San Fausto auzoko postontzi "gehienetan" ez zutela banatu-eta, kexa helarazi zion auzokide batek udalari. "Aterik zabaldu ez duten zenbait etxe daude, edo ez delako inor egon, edo ez dutelako nahi izan", erantzun dio udalak. Banaketa enpresak dioenez, kexa jarri duen auzokidearen etxean informazio hori banatu banatu zuten. Udalak aterik zabaltzen ez duten atarien sarreran ale baten kopia jartzea erabaki du.

**Iritzia****2014ko udal aurrekontuen irakurketa**

Bildu Abadiño, bere herriarekiko duen konpromisoa berretsita, prest agertu zen gobernu taldearekin 2014ko aurrekontuak lantzean eta adosteko. Aurrekontuak herritarren parte-hartze bidez egitea, krisi egoerak sortutako arazoei alternatibak garatzeko politikak aurrera eramatea (inbertsio soziala handitu, enplegu politikak sustatu, etxebizitza politika propioa garatu), eta inbertsioen lehentasunak adostea izan ziren jarritako baldintza nagusiak.

Baldintza horiek apirilean aurkeztu arren, bai prentsari eta baita udaleko gainontzeko talde politikoei ere, ez dugu inongo kontakturik izan. Iaz gertatu bezala, aurten ere aurrekontuak gure lepotik adostu dituzte EAJ-rekin, eta udaletxera maitzaren 16an ekarri zituzten aurrekontuak lehenengoz. Hamaika egun natural besterik igaro ez direnean onartu dituzte. Beste behin ere, aurrekontuen lanketatik baztertu dute Bildu, eta aurrekontuak beste ikuspuntu batetik

garatu ahal izatea oztopatu dute.

Bestetik, alkateak parte-hartzearen inguruan azterketa bat egiteko prest zegoela esan, eta aspaldian parte-hartzearen bandera jarri nahian, hitzaldiren bat eman duen arren, ez du horrelakorik egin. Gure ustez, parte-hartze politika batek erabat elikatuko lituzke aurrekontuak, auzoetako beharrianak eta lehentasunak finkatuta edukiko genituzkeelako. Bestalde, gaur egungo aurrekontuekin jarraipen huts bat baino ez da egiten, urtetik urtera partidak doituak soilik. Horregatik, aurrekontuak epe motzera begira egindakoak dira, etorkizunerako perspektiba barik. Hor daude ur patzueragan sartzeko izandako premina, sa-neamenduagaz dagoen arazoa, Matienako urperagarritasuna ekiditeko plana, eta betiketozen ari den mugikortasun arazoa, esaterako.

Arrazoi horientatik guztientatik Bildu Abadiñok ezezkoa eman dio aurtengo aurrekontuei.

Aitor Azueta, Saioa Zuazubiskar, Hiba Urrutia, Irakusne Gorospe, Maria Luisa Larringan. **Abadiño**ko Bilduko zinegotziak.

[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)  
astekaria 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

Aalderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

# Berbaz

Zalóa Ares | Injineru kimikoa | Durango, 1986

## “Klima aldaketaren aurrean, aukera asko hartu daitezke kontsumitzaile moduan”

Zalóa Aresen biodieselaren inguruko proiektua saritu zuten Suediako Gävleko Energi eta Tekniska Föreingen Gävle erakundeek. Ikasketa bukaerako lana amaituta, klima aldaketari aurre egiteko neurriak aztertzen dihardu Bilboko Factor CO2 ekimenean



### > JONE GUENETXEA

Datozen urteetan gobernuak zein norbanakoek izango duten erronka nagusienetako bat klima aldaketari aurre egitea izango da. Baina klima aldaketa ez da etorkizunean gertatuko den zerbait. Izan ere, ingurumenak dagoeneko eman ditu hainbat abisu. Fenomeno horren inguruan aditua da Zalóa Ares injineru durangarra. Sektore publikoarentzat eta pribatuarentzat, Euskal Herrian zein nazioartean, klima aldaketak izango duen eragina aztertzen dihardu.

### Zer da Factor CO2?

Guk ekimen moduan definitzen dugu. Eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak klima aldaketaren ingurukoak dira.

Klima aldaketaren inguruan, zer ikuspuntutatik lan egiten duzue?

Guk aholkularitza eskaintzen dugu, eta txostenak egiten di-

tugu. Alde batetik, estrategiak eta kalkuluak egiten ditugu. Eta karbono aztarna ere aztertzen dugu. Bestetik, emisio eskubideen inguruko komertzio erregimenaren barruan enpresa batzuei laguntzen diegu. Estrategiak prestatzen ditugu, isurpenak zelan gutxitu zehazteko. Horretaz gainera, energia eraginkortasunaren arloan lan egiten dugu.

Trinidad eta Tobago uharteetako aldaketa klimatikoa aztertu duzue. Zein egoera dute Karibeko uharte bi horietan?

Aurreikusten dugunez, uharte horietan klima aldaketa gogorragoa izango da, itsasoaren maila igo egingo da eta. Horretaz gainera, gas naturala eta petroleoa daukate. Beraz, gasolina oso merkea da, eta, ondorioz, alde guztietara kotxez doaz. Horretaz gainera, industria asko dute. *Egokitzapen ekonomia aldaketa klimatikora Trinidad eta Topagon* izena duen txostena

osatu dugu bertako gobernuarentzat. Alde batetik, kalkulatu dugu aldaketa klimatikoak uharte horietan zer gastu izango duen, ez badute ezelango neurririk hartzen. Bestetik, neurri zehatz batzuk proposatu ditugu, eta horrek izango litzukeen kostuak eta irabaziak kalkulatu ditugu.

Produktuen eta karbono aztarnaren inguruko proiektu bat duzue orain esku artean.

Hamar produktu tipikoren inguruko karbono aztarna aztertuko dugu Bilbon. Gurinezko opilak eta txapelak, esate baterako. Guk produktu horiek ekoizteko ziklo osoan erabili dena kalkulatu dugu. Emisio faktore batzuk kalkulatu ditugu. Emisioen zati garrantzitsuena non dagoen ikus daiteke, eta horrela hori gutxitzen saiatu daiteke.

Adapta proiektuan enprekin diharduzue.

Renfe, Bodegas Torres eta beste

hainbat enpresarekin lan egiten dihardugu. Torresen, maila altuagoan dauden lurrak erosten dabilta, mahatsa bertan landatzeko. Klima aldaketaren eragina aurreikusten saiatzen ari dira.

“

*Hamar produktu tipikoren karbono aztarna ikertzen gabilta Bilbon*

Klima aldaketak zer eragin izango du, aurrerantzean, gure inguruan?

Klima erradikalizatu egingo da. Euskal Herrian edo Andaluzian ondorioa ez da berbera izango. Andaluzian sikate gehiago izango dira, eta Euskal Herrian eurria egingo du, baina egun gutxiagotan eta bortitzago. Marea biziagoak ere izango dira.

Durungaldean frackingaren inguruko baimenak eskatuta daude. Frackingaren inguruan zer iritzi duzu?

Ez dihardut arlo horretan lanean, beraz, ez naiz aditua, baina badut nire iritzia. Garestiegia da gas naturala ateratzea, baina merkatuan prezio hori ordaintzen denez, atera egiten da. Frackingaren kontra nago.

“

*Energia berriztagarriak bultzatu beharrean, frackinga aukera errazena hartzea da*

Klima aldaketaren ikuspuntutik, sistema txarra da. Gas naturala aterako dute, erre egingo dute, eta hori CO2 bihurtuko da. Energia berriak bultzatu beharrean, aukera errazena hartzea da. Betikoa egitea da, baina, gainera, lehen baino zailagoa da gas naturalera heltzea, eta ingurumenarentzat eragina txaragoa da.

Aldaketa klimatikoaren aurrean, noren esku dago neurriak hartzea?

Gobernuek martxan jartzen dituzten neurriak garrantzitsuak dira, baina gutako bakoitzak egunerokotasunean egiten duena ere garrantzitsua da. Nik, esaterako, ez daukat kotxerik. Garraio publikoa erabiltzen dut. Aukera pertsonalak dira. Argiaren edo uraren kontsumoa kontuan hartzea, adibidez. Erabaki asko hartu daitezke kontsumitzaile moduan. Gizarteak presioa egitea ere garrantzitsua da, gobernuak zer edo zer egiteko.

Master bukaerako proiektua Suedian egin zenuen.

Ingeniaritza Kimikoa San Mamesen ikasi nuen, eta bosgarren urtean Suediara joan nintzen energia sistemen inguruan ikertera. Proiektuaren helburua biodiesela sortzea zen. Sistema bat bilatu gura genuen Suediako baseritarrek biodiesela etxean egiteko. Osagaiak normalean berotasunagaz biodiesela egiten da. Nik laborategian frogatu nuen berotu barik ere egin daitekeela.

## &gt; MUSIKA

## Pastoralen tradizioa abiapuntu duen kantaldia: Amaren Alabak Berrizen

Berrizko Andikoa auzoko jaien barruan, emanaldia eskainiko dute bihar Amaren Alabak taldeko kantari zuberotarrek

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Amaren Alabak seikoteko lau abeslari ariko dira Berrizko Andikoako baselizan, auzoko jaietan. *Plazandere* izeneko bigarren diskoa aurkeztuko dute zuberotarrek, bihar, 20:00etan. Zuberoako tradizio aberatseko kantuak dira Amaren Alabak taldeak eskaintzen dituenak. 2012an kaleratu zuten *Plazandere* lana, eta, besteak beste, Etxahun Barkoxeren, Etxamendi eta Larralderen, eta Xalbadorren letrak bildu zituzten bertan. Maite dute mikrofonorik barik eta jendea hurbil izanik aritzea kantuan. Gustura ariko dira Andikoan: “Horiek dira guretzat baldintzarik onenak”.

“Maite ditugun poeten hitzak eraman ditugu gurekin”, azaldu du Maika Etxekopar taldekideak. “Xiberuako istorioak kontatzen dituzten kantak dira, eta, aldi honetan, kanta ezagunagoak aukeratu ditugu, beharbada”. Bestalde, Didier Agerre presoak idatziriko testu bat ere bildu dute bigarren disko honetan: “Presondegira joan ginen kantaldi bat egitera, eta letra horrekin atera ginen”, kontatu du Etxekoparrek. “Kantu bakoitzarekin badugu gure istorioa”. Hitzaren erabilera, “istorioak kontatzeko manera” bereziki interesatzen zaie Amaren Alabei: “Etxahun Barkoxek, esaterako, erailte istorioak kontatzen ditu sarri: oso kontalari ona da, eta anitz xarmatzen gaitu nola istorio larrietatik ateratzen duen edertasuna”.

Maika Etxekopar kantariak azaldu duenez, *Plazandere* diskoko kantetarik askok “badute larritasun puntu bat: esaterako, Etxamendi eta Larralderen *Hezurren baladak* militantziari, kausa baten alde hiltzeari buruzkoa da”.

Berrizen eskainiko duten ikuskizun honetarako Pastoraletik –Zuberoako

tradizioko herri antzerkiaren formatik– abiatu direla azaldu du Etxekoparrek: “Pastoraletako makilekin ibiltzea da ikuskizunaren formaren abiapuntua”. Izan ere, Amaren Alabak taldekoek abestietako hitzei besteko garrantzia ematen diete formari eta dantzari, oholtzako jolasari eta melodiari.

Oholtza handietan, jende askoren aurrean eta arrakasta handiz ere arituak dira Amaren Alabak; esaterako, Oreka TX eta Kukairekin *Hostoak* eskaini zuten Euskal Herrian zehar. Ohiko formatutik atera ziren horretarako. Bi pastoraletan ere parte hartu dute oraintsu: Euskal Herriko ijitoei buruzko *Ederlezi* pastoraletan eta *Alienor* pastoraletan.

‘Plazandere’ ikuskizuna sortzeko herri tradizioko antzerkiaren formatik –pastoraletik– abiatu dira Amaren Alabak taldekoak

10 urte ingurugaz, 1.999. urtean, hasi ziren Amaren Alabak elkarrekin kantatzen, eta “elkarrekin handitu eta heldu dira”. Maika Etxekoparren berbetan, diskoan ere nabari da heldutasun handiagoa. Lehenengo lanean, *Anderegatik* izenekoan, bestelako moldez sortu zituzten kantak: tradizioko kantak bildu zituzten, eta senitartekoen laguntza izan zuten sorkuntza prozesuan. Beste herrialde batzuetatik Zuberoara bizitzen joandako emakumeek irakatsitako kanteekin osatu zuten disko hura.

Biarnon bizi dira, gaur egun, taldeki-deetako batzuk, baina Zuberoatik gertu bizi dira denak, eta jaioterria da Amaren Alabak taldearen elkargunea.



Seikoteko lau kide ariko dira Berrizko biharko emanaldian.

## &gt; IKUSKIZUNA



## “Zeinu-hizkuntza eta hainbat diziplina artistiko uztartuta egiten dugu lan”

Urritasunen bat daukaten ume saharauiak udan Durangaldera ekartzeko, Rio de Oro elkartearen ekimen solidarioari laguntzeko emanaldia eskainiko du Raket R.R. (Granada, 1977) musikari eta antzerkigilearen Arymux taldeak, Plateruenean, ekainaren 1ean

## &gt; ITSASO ESTEBAN

**Dantza eta antzerki ‘ulergarriari’ loturiko Arymux konpainiako zuzendaria zara. Zein da taldearen helburua?**

Arymux konpainiaren helburua da denteriko publikoarentzat ulergarriak diren ikuskizunak sortzea, eta antzerkia, dantza eta poesia uztartzen ditugu horretarako. Ez dugu ezintasunen bat duen jendearentzako ikuskizun berezirik sortu nahi, edozelako pertsonak gozatuko duen ikuskizuna sortzea da helburua. Ni musikaren mundutik nator, eta zeinu-hizkuntza ikasten hasi nintzenez konturatu nintzen posible zela, esaterako, gorrek ere goza dezaketzen ikuskizun bat sortzea. Zeinu hizkuntza eta hainbat diziplina artistiko uztartuta egiten dugu lan.

**Zelakoa da Plateruenean eskainiko duzuen ‘Bailando el silencio’ ikuskizuna?**

Zeinu-dantza ikuskizuna da; besteak beste, Italian, Andaluzian eta Madrilen erakutsi izan dut. Durangoko kasuan, 30 lagunek hartuko dute nigaz batera ikuskizunean parte: aktoreak, dantzariak, abeslariak, zeinu-hizkuntzaren interpreteak, umeak eta helduak. Gainera, hainbat dantza estilo erakutsiko ditugu. Sentsibilizazioarako modu bat ere bada ikuskizun hau elkarrekin eraikitzea bera, nahiz eta lan handia eskatzen duen.

**Zer teknika edo baliabide darabilzue ikuskizuna denontzat ulergarri egiteko? Puxikak banatzen dizkiogu publikoari,**

esaterako, gorrek diren pertsonen musikaren bibrazioak transmititzeko. Emanaldian, bestalde, zeinu-hizkuntzaren interprete bi egongo dira oholtzan, beste hainbat interprete egongo dira publikoan, eta kanta guztiak emango ditugu zeinu-dantza erabilita. Entzuten duenak zein entzuten ez duenak, denok ikuskizun bera elkarrekin gozatzea da gure helburua.

**Zelan sortu da Rio de Oro gaz elkarlana?**

Euren proiektua zein den azaldu zidatenean, benetan lan polita egiten zebiltzala iruditu zitzaidan. Ondoen dakidan moduan kolaboratuko dut Rio de Oro elkarteagaz: nire ikuskizuna eskainita. Iaz eza gutu nuen elkarrekin, eta baita hemen egon ziren ume saharauiak ere. Harreman jarraitua daukagu orduetik hona, eta horrela sortu da emanaldi hau egiteko aukera.

**Asko dago egiteko inor kanpo uzten ez duten kultura emanaldien arloan?**

Bai, asko dago arlo horretan egiteko. Azken batean, kulturaren, hezkuntzaren eta urritasunen munduak dute gai horregaz lotura, eta, hain justu, hiru alor horiek dira murrizketek gehien eragin dituztenetik batzuk. Iruditzen zait gizarteak inbertitu behar duela horretan. Zeinu-dantzan jendea hezten dihardut Espainiako estatuan eta Italian: beharrezana dagoen erakusle. Lan asko dago egiteko, eta horrela harresi eta aurreiritzi asko apurtzea lortuko dugu. Betiere, profesioari eta publikoari errespetu handiena erakutsita.

## &gt; LITERATURA

# 'Hodeiak zapatetan' poesia liburua aurkeztuko du Etxaburuk Durangon

Hitz liburudendan elkartuko da Mikel Etxaburu literaturazaleekin, gaur



2013. urtean idatzirik poemak dira 'Hodeiak zapatetan' liburukoak.

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Mikel Etxaburu (Ondarroa, 1969) ariko da gaur, 19:30ean, Durangoko Hitz liburudendan, *Hodeiak zapatetan* bere poesia liburuko olerkiak errezitatzen. Susa argitaletxeagaz argitaratu duen liburuko olerkiak irakurriko di-

tu Etxaburuk. Idazlan bakoitza egitera bideratu duten pentsamenduak eta sentimenduak ere partekatuko ditu literaturazaleekin: bere lana azaltzeko eta kokatzeko. Bestalde, olerkiekin lotutako irudiak eta soinuak ere eskainiko ditu emaldian.

Idazle ondarroarraren berbetan, "errezitatzeko, ahoz gora irakurriak izateko sortuak dira olerkiok: pentsatzen baitut poesiarren hurrengo urrats naturala dela sozializatzea, kontatzea. Ez dut nahi olerkiak liburu formatuan harrapatuta geratzerik".

2013. urtean idatzirik poemak dira *Hodeiak zapatetan* liburukoak. "Kartzela, atzerria, hutsunea, konpromisoa eta konpromisoaren oinarrian dagoen maitasuna" dira liburuko olerkien ardatz nagusietako batzuk. Espetxealdiak eta kartzela osteak gurutzatzen dute liburua.

*Zeuzara orain txoria* bere lehenengo poesia liburua kartzelan idatzi zuen Etxaburuk. "Kanpora begira idatzi nuen", azaldu du egileak. Lau urte dararamatza Mikel Etxaburuk libre, eta, bere berbetan, "bigarren liburua kanpoan idatzi arren, burua barrura joaten zen idaztean: eskola, oroitzak, itxitasuna eta estutasuna dira gehien errepikatzen diren elementuak". Etxaburuk dioenez, "horrek badauka arrazoi bat: udazkenean epaiketa izango dugu berriro. Horrek berriro dakartza zalan-tzak eta beldurrak, eta mamu horregaz idatzirikoa dira olerkiok".

*Gerezi gorriak* olerkiagaz amaitzen da liburua. Horixe da egilearen alerik maiteena, esperantzari atea zabalik uzten diona: "Gauza asko esaten saiatu naiz olerki horretan, eta hori ere azaldu nahi dut Durangon".

## &gt; LEHIAKETA

## Libre Sahara lehiaketan saria jaso du Iban Gorritik

'Si les dicen que caí' izenburuko idazlana saritu diote Iban Gorriti kazetari durangarrari

Libre Sahara literatur lehiaketan lehenengo saria eman diote Iban Gorriti (Durango, 1970) kazetariari. Iban Gorritik bigarren aldiz jaso du saria Hayu Sahara elkarteak eta Joves Saharaús Catalunya elkarteak duela hiru urtetik antolatzen duen lehiaketan. Iaz, bigarren saria irabazi zuen, *Gora bihotzak! Isiltasun harresiarentzako musuak* idazlanagaz. Saharar baten eta kazetari baten arteko telefono bidezko elkarrizketa zen narrazio horren haria.

*Si les dicen que caí* izenburuko lana da, aldiz, Gorritik aurten lehiaketara aurkeztu eta

saria jaso duena. "Marokoko harresiari ez" gaia eman du, aurten, narrazioen lehiaketako antolakuntzak: sahararrak banatu eta zapaltzen dituen harresiaren kontrako. "Injustizia sufritzera kondenaturiko saharar herriari ahotza emateko" helburuz antolatzen dute lehiaketa.

Bigarren saria, oster, Mohamed Fadelen *Un recuerdo cercano* izenburuko lanak jaso du, eta Xabier Susperregiren *Poemas encadenados* lanari eman dio epaimahaiak hirugarren saria. Idazle sahararrek osatzen dute Libre Sahara literatur lehiaketako epaimahaia.

## &gt; MUSIKA

## Durangoko Orfeoia eta Tabira Musika Banda, Elgoibarko gaiteroekin

Domekan, Durangoko Andra Mariko elizpean

Durangoko Euskal Asteko egitarauaren barruan, Andra Mariko elizpean eskainiko dute emaldia Durangoko Orfeoia eta Tabira Musika Bandak. Elgoibarko gaiteroak gonbidatu dituzte eurekin emaldi hori eskaintzera. 19:00etan hasiko den emaldiaren aurretik, 18:00etan, Elgoibarko gaiteroekin batera Durangoko Alde Zaharrean zehar kalejira egingo dute, eguraldiak laguntzen badu. *11 de octubre* eta *Las fiestas de Estella* piezak eskainiko dituzte orfeoia eta musika bandak Elgoibarko gaiteroekin batera.

Tabira Musika Bandak, *Euskaldunak irabazi*, *Ordizia* eta *Cantos vascos* obrak interpretatuko ditu, eta, Durangoko Orfeoiko ahotsek lagunduta, *A concert of celebration*, *Aida* operaren ereserkia eta martxa, eta *Jaialdia* obrak eskainiko ditu.

Eguraldiak laguntzen badu, 18:00etan, Elgoibarko gaiteroekin kalejira egingo dute Alde Zaharrean

## GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

Kazetaria



### Gutxi batzuk zaretelako

Sasizko bidezidorretatik ateratzeko beranduegi delako honezkero. Aurrera egitea besterik ez zait gertatzen. Sekula jantzi ez dudana moztarra ere, nireegi egin baitut dagoeneko.

Muturreko miniaturara eramandako Kazimirren puntu beltza tipexarekin estaltzeko gai izan gura dut. Jorgeren hustasuna kontzeptu artistiko ez ezik, bizi-esanahi hutsa baino zerbait gehiago ere bada. Alabaina, saia nadin betetzen.

Nobela bateko pertsonaia izan nahi dut, orrialde zuri eta lisoetatik zertan irten izan gabe. Lerrorik lerro ihesean aritzeko pribilegioarekin. Fikzioan hasi, eta fikzioan amaitu. Irakurraldi bakoitzean biziberritu: ordua arteko guztiak ezer ez du balio izango.

Atzera begiratzeko beldurrik izan ez, eta aurrera ilusioz ekiteko gogoia izan. Ohetik altxatzen naizen bakoitzean, guztia gaur hasiko dela sinesteko balentria pilatu. Egunero bizitza berri baten jaiotza izan dadin saiatu.

Ez soilik isiltasuna hizketan noiz hasiko den zain egon. Aitzitik, isiltasuna xaxatu, hizketan hasi dadin. Ideiak ideien kontra. Sentimenduak sentimenduen aurka.

Ahultasuna deklaratu. Errudun naizela aitortu. Baina ziega ni neu izateko beharrik gabe; eramangarriagoa baita zigorra beste inork deliberatzean. Autolezio gehigorik ez.

Eta bitartean... bitartean zuei eskerrak eman. Nire bertsorik onenak ere (txalo egin ondoren) txarrak direla esaten didazuelako. Zuen alde topa!

San Agustín KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

ekainaren 27tik aurrera  
**UDA KALEAN BIZI**

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net

MAIATZAK 30 - 22:00etan 3euro  
**3. GREATEST HITS GAUA**  
MUSIKA KONTZERTUA

MAIATZAK 31  
**IKASTURTEKO AZKEN KANTULAGUNA**  
13:30etik aurrera Alde Zaharretik, ondoren bazkaria  
KANTUZALEENTXOKOA

EKAINAK 1 - 19:30ean  
**ARYMUX "Bailando el silencio"**  
DANTZA IKUSKIZUNA

Eguneko menua astalohenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu  
**deitu!**

**946 217 902**



# JATETXE GIDA

**ÑAM!****ÑAM!**

## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)  
Entsalada  
Patata frijituak  
Zatitutako txuleta errea  
Postrea  
Ogia eta edaria

**60€**  
bikoteko  
(BEZa barne)



### LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO  
Tel.: 946 218 122  
Etxeko pizzak. Eguneko menua,  
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.  
[www.lapikodurango.com](http://www.lapikodurango.com)



### JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ  
Tel.: 946 824 077  
Karta. Txuleta errea.  
75 laguntzako jangela.

**ÑAM!****ÑAM!**

### PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ  
Tel.: 946 826 246  
Eguneko menua. Karta. Domeka,  
astelehen eta martitzen gauetan itxita.



### PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4  
Tel.: 946 030 300  
Eguneko menua astelehenetik zapatara.  
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

**ÑAM!**

### IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA  
[www.ibarra-sagardotegi.com](http://www.ibarra-sagardotegi.com)  
Tel.: 946 731 100  
Egunero zabalik.  
Gure upategian egindako sagardoa.  
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi  
personarentzako menua zozkatuko dugu

**Emakumeen Birako zenbagarren edizioa  
antolatu dute ekainaren 12tik 15era?**

ERANTZUNA: [zozketa@anboto.org](mailto:zozketa@anboto.org) helbide elektronikora edo  
Anboto astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta  
Aurreko zozketako irabazlea: **Lourdes Ercilla**, zorionak!

**ZORTE ON!**



## Egun bat Baqueren bizitzan

Mende bat baino gehiago darama Durangaldean Cafés BAQUEk kafea txigortzen eta bertatik zerbitzatzen. Hainbat pertsonen historia txikiz betetako historia luzea, egunez egun, gure “hemengo kafea” zerbitzatzen jarraitu ahal izateko lan egiten dutenak.

### > CAFÉS BAQUÉ

**Idoia Mora eta Mikel Bizkarrak bezala, 18 eta 23 urte daramatenak Kalitate eta Operazio departamentuetan. Haiekin, eta Baqué kafe katilu batez lagunduta, haien egunerokoan enpresan egiten dituzten lan eta zereginetatik ibilbide bat egingo dugu.**

Mikel Bizkarrak, Operazio Departamentuko zuzendariak, kafea siloratzeaz eta txigortzeaz, ontziratzeaz eta logistikaz arduratzen diren hamabi pertsonak osatutako taldea koordinatzearen ardura du.

**Zeintzuk dira zuen egunerokoan egiten dituzuen zereginak?**

Gure misioa gure bezeroen eskaerak konprobatzea da, eta, informazio hori kontuan hartuta, zer txigortu eta ontziratu behar dugun planifikatzen dugu; horrela, gure bezeroei kafe egin berria ziurtatzen diegu.

**Munduko toki askotatik etorritako kafe jatorri sorta zabala-rekin lan egiten duzue Baquen. Jatorri horiek guztiak zelan kudeatzen eta prozesatzen dira? Kafe nahasketa bakoitza mundu bat da. Horregatik, gure zeregin printzipala merkatuko zaporeak ezagutzea eta bezeroek kafean gehien baloratzen dutena zer den jakitea da. Behin txigortuta dagoen kafe nahasketekin, merkatuko beharrak betetzen saiatzen gara.**

Kafea produktu biziduna da, eta, eskualde bakoitzaren barruan, uztaro bakoitzak kafe desberdina ematen digu. Eta Cafés Baquen modu horretan erabiltzen dugu. Lehenengo, jatorri bakoitza banan-banan siloratzen da, eta, gero, banaka txigortzen da. Prozedura hori behin eginda, gure kafe errezeta emango digun kafe nahasketa egiten dugu.

**Bezero kopuru handi bati kafea zerbitzatzeko eta bolumen handiak ekoizteko, prozesu produktibo eraberritzaileak edukitzea beharrezkoa da. Zeintzuk dira Cafés Baquek dituen prozesu eraberritzaileak? Bezeroen gogobetetze parametroen konstanteak mantendu ahal izateko giltza prozesuaren automatizazioa da. Prozesu horren barruan, produktuaren trazabilitatea eta kafe mota bakoitzerako kurba espezifikoaren bitartez egindako txigorketaren automatizazioa dira giltza. Bertan, kontrolpean mantentzen dira kafeak garatzen dituen presio, tenperatura, kolore eta bolumen aspektu guztiak. Gainera, ontziratze prozesuan automatizazio gradu handia dugu, gure esku dauden teknika onenak erabiltzen ditugu.**

**Eraberritze guztiaren gain, enpresaren bereizgarri diren ezaugarri tradizionalak eta artisautza ezaugarriak mantentzen jarraitzen al duzue?**

Bai. Aurrerapen teknologikoak prozesu osoaren erregulartu-

sunean eta kontrolean lagundu gaitu, baina mekanikoki txigorketa artisaua jarraitzen du izaten, aire beroak kafe ale bakoitza biltzen duen konbekzio metodoaren bitartez; horrek txigorketa artisaua izatea eragiten du. Gainera, prozesu produktiboaren barruan, departamentua osatzen duten pertsonen eskulanak pisu handia izaten jarraitzen du.

**Zeintzuk dira kafe egin berria eskaintzen eta kafearen ezaugarriak bere horretan mantentzen laguntzen duten erreminta produktiboak?**

Ontziratze erabiltzen ditugun materialak berrienak dira, eta horiei esker, behin txigortutako kafearen mantentzea ezin hobea da, eta produktuaren oxidazioa saihesten du. Material horiek ontziratze makina moderno eta automatizatuarekin batera, etekin ezin hobek eta kafe egin berria mantentzeaz gain, bere ezaugarri organoleptikoak mantentzen ditu.

Ekintza horiek eguneroko igarotzen dira bere lankide Idoia Morak gidatzen duen taldeak aurrera eramaten dituen kalitate kontrol eta azterketetatik, eta prozesu produktibo osoa ere bai, hasieratik amaieraraino.

Idoia Morak, Cafés Baqueko kalitate zuzendariak, eta bere taldeak, 20.000 kafe baino gehiago dastatzean oinarritzen dute haien esperientzia urtero. Baqué produktu guztiak aztertzeaz arduratzen dira.

**Zeintzuk dira departamentuan eguneroko dituzuen zereginak?**

Egunero lehengaietan, ekoizpen prozesuan eta amaitutako produktuan kalitate kontrola egiten dugu, eta kafe pakete guztiek kalitate parametro guztiak betetzen dituztela ziurtatzen dugu.

**Produktuaren zein momentuan egiten dituzue kalitate azterketak eta zeintzuk dira azterketak horiek?**

Kalitate kontrolak ekoizpen prozesuko puntu guztietan egiten ditugu. Lehenik eta behin, gure instalazioetara eguneroko heltzen den lehengai aztertu egiten dugu. Kafe alearen neurria frogatzen dugu, akatsak dituzten ala ez konprobatzeko lagin batzuk txigortu eta dastatzen ditugu, zaporean akatsik ez dutela konprobatzeko.

Gero, jatorri bakoitzerako txigorketarik onena zehazten dugu, eta ehotze eta nahaste zuzenak zehazten ditugu.

Azkenik, nahasketak eta ehotketak zuzenak direla frogatzeko amaitutako produktua berriz ere aztertzen dugu, zapore zuzena eta kafe makinan bere portiera zuzena dela ziurtatzeko kafea dastatzen dugu.

**Kafe gordina instalazioetara heltzerakoan kalitate kontrola pasatu behar du erosketak ezaugarriak betetzen dituela ziurtarazteko. Zelan kudeatzen duzue kafe berdearen aukera eta erosketak, eta zein kalitate irizpide ezartzen diozue? Ekoizten ditugun kafe produk-**

tuen arabera, zein kafe jatorri erosi erabakitzen dugu, eta erosketak irizpideak hurrengo hauek dira: lehenik eta behin, barietatea, hau da, kafe arabikoa edo robusta den. Gero, arabikoen barruan garbia (garraztasun handiagorekin) edo garbitu gabea den zehaztu behar dugu. Gainerako irizpideak jatorria, kafearen kalitatea jatorri bakoitzaren barruan, kafe alearen neurria, akats kopurua, eta abar dira. Noski, gure irizpideak betetzen ez dituzten zaporeak dituen edozein kafe erosketak errefusatu egiten dugu.

**Kafeaz gain, Cafés Baquek osagarriak diren beste produktu batzuk saltzen ditu. Produktu horiei ere kalitate azterketak egiten dizkiozue?**

Produktu osagarriak egiten dizkiegun kontrolak kafeari egiten dizkiegunak baino gutxiago dira, irizpide zorrotzekin homologatu ditugun hornitzaileak baititugu. Hala ere, produktu hauek jasotzen ditugunean eta gure instalazioetatik irten baino lehen, produktu bakoitzak bere kontrol zehatzak igaro behar ditu.

**Zeintzuk dira enpresaren kalitate ziurtagiri edo bermeak?**

Gaur egun ISO9001:2008 kalitate ziurtagiria eta ISO1401:2004 ingurune ziurtagiria ditugu, baita Rain Forest Alliance ziurtagiria duten kafe produktu batzuk.

Gainera, momentu hauetan gure prozedurak IFS arauari egokitzeko lanean gaude.

Mikel eta Idoia eta haien departamentuetan lan egiten duten pertsonen esker lan honi aurpegia eta ahotsa jarri dizkiogu, konpromiso eta profesionaltasunaren isla zehatza. Izan ere, Cafés Baqué enpresa eredu jarraigarri bihurtu dutenak dira. Jarraituko du...

# Kirola



## Biran, erlojupekoaren orde, denbora sariak emango dituzte helmugan eta etapan zehar

Ekainaren 12tik 15era izango den Emakumeen Biran aurten ez dago erlojupekorik; urtero legez onenak etorriko dira, tartean, Marianne Vos munduko txapelduna eta Emma Johansson iazko irabazlea

### > JOSEBA DERTEANO

Atzo aurkeztu zuten ekainaren 12tik 15era izango den Emakumeen Biraren 27. aldia. Aurtengo nobedade nagusia da ez dela erlojupekorik egongo, eta horregatik ipini dituzte denbora sariak. Parte-hartzaileei dago-

kienez, onenak etorriko dira. Etapak diseinatzerako orduan, aurrekontuan lagundu duten udalen irizpideak kontuan hartu dituzte antolatzaileek, eta "aurten horrela egokitu da", azaldu du Agus Ruiz Emakumeen Bira ZKEko ordezkariak

erlojupekoa kentzearen inguruan.

Faboritoen artean denborak markatzeko erlojupekorik ez dagoenez, antolatzaileek etapa bakoitzeko denbora sari bi ipintzea erabaki dute: helmugan 6, 4 eta 2 segundo; eta, etapan zehar,

epaileek bakarrik jakingo duten puntu batean, 3, 2 eta 1. Horrela, lehiakortasun eta emozio handiagoa eman gura diote Birari. Helmugako denbora saria berreskuratu egingo dute, Birako hasierako aldietan bazegoelako. Etapetan zehar dauden denbora

sariak, aldiz, adierazi dute inon ez dutela aurrekaririk. Tourreko lehen aldietatik hartu dute ideia. Orduko etapa luzeetan (400-500 kilometroko eta 8 orduko etapak) epaileek kontrol guneak ipintzen zituzten parte-hartzaileek "tranparik" egin ez zezaten. Ideia hori lehiakortasuna handitzeko erabiliko dute Biran.

### Vos eta Johansson

Izena eman dutenen artean Marianne Vos dago; herbehere-tarrak birritan irabazi du Bira. Aurten, BTTan zentratuta dabil, baina errepideko lasterketa batzuk ere lehiatzen ditu. Iazko irabazle Emma Johansson ere irteera puntuan egongo da.

Biran hemezortzi talde hartuko dute parte, eta horietako hiru euskaldunak dira: Bizkaia-Durango, Lointek eta CAF Transport Engineering. Azken hori, Emakumeen Bira ZKEren taldea da. Biran parte hartu gura zuten, baina horretarako talde edo aukerarik gabe zueden txirrindulariei aukera eskaintzeko baliatuko dute. Tartean Ziortza Isasi elorriarra dago; 19 urte gaz bere lehenengo Bira izango da. Eneritz Iturriaga izango da taldeko zuzendaria Biran. Bizkaia-Durango taldea Anna Ramirez, Irene San Sebastian, Leire Olaberria, Maialen Noriega eta Dorleta Eskamendik osatuko dute. Oyarbidek Erlojupeko Euskadiko Txapelketa irabazi berri du, eta Leire Olaberriak Gipuzkoako Itzulia.

### 1. etapa: ekainak 12

- Iurreta-Iurreta (88 km)
- Zumeltz (2. maila); Urkiola (3. maila)

Iurretan hasi eta amaituko den lehenengo etapa hau ohikoa da Emakumeen Biran. Lehen zati eramangarri baten ostean, Zumeltz eta Urkiola (Otxandiotik Durangorako norabidean) igoko dituzte, baina benetako aldeak jaitsieran heldu daitezke. Jaisten abila direnek ibilbide aproposa aurkituko dute Urkiolako bihurtune itxi eta teknikoetan. Ondoren, Mañaritik helmugara 6 kilometro eskas geratuko dira.

### 2. etapa: ekainak 13

- Oñati-Oñati (113,7 km)
- Udana (3. maila); Atagoiti (2. maila)

Lehenengo zatia laua da, eta errodadoreentzat aproposa. Azken txanpan Udana eta Atagoiti Gane igoko dituzte, baina ez dira mendate larrogorak. Atagoitik %4 inguruko desnibela du batez beste. Baina mendateekin beti gertatzen den legez, lasterketako erritmoak markatuko du benetako gogortasuna. Azkenengo 10 kilometroak azkarrak eta beheranzko joeragaz izango dira.

### 3. etapa: ekainak 14

- Arrieta-Mungia (91 km)
- Arrieta (2. maila); Andraka (3. maila)

Etapa konplikatu da, eta oso gogorra izan daiteke. Ia ez dago lautadarik, eta ibilbide gorabeheratsu bati aurre egin beharko diote txirrindulariek. Hankek ez dute indarberritzeko modurik izango ibilbide osoan. Aurreikuspenen arabera, Birako sailkapen nagusirako borrokan dabilzanek protagonismoa hartuko dute etapa honetan. Denborak markatuko dituen etapa izango da. Arrieta eta Andraka dira hirugarren etapako mendateak.

### 4. etapa: ekainak 15

- Ataun-Ataun (115,4 km)
- Urkillaga, Abaltzisketa (2. maila)

Birako etaparik gogorrena da, dauden mendateengatik eta txirrindulariek aurretiko etapetako ahalegina igarri dezaketelako. Urkillaga birritan igoko dute. Lehenengo igoerak galbahe lana egingo du, eta bigarrena helmugatik gertu dago. Hori gutxi balitz, igoera bien artean Abaltzisketa gaina ere igaro beharko dute txirrindulariek. Ez dira mendate luzeak, baina bai gogorrak: %8-9ko desnibelak daude aldapa askotan, eta %11ra heltzen dira une batzuetan.

**DURANGALDEKO LANBIDE IKASTETXEA**  
PRESTAKUNTZA IRAGANKORREKO PROGRAMAK (HLPP)

**2014-2015**  
Ikasturtea

dohainik

 <p><b>ZUREZKO AROTZERIAKO FABRIKAZIOKO, MUNTAIKO ETA AKABERETAKO LANGILEA</b></p>	 <p><b>SUKALDEKO ETA ZERBITZUKO LANGILEA</b></p>
 <p><b>ITURGINTZAKO LANGILEA</b></p>	 <p><b>PINTURAKO, PAPERZTATURAKO ETA ERAIKUNTZAKO BESTE AKABERA BATZUETAKO LANGILEA</b></p>

 Durangoko Mairaldearen Amankomunazgoa  
 Mancomunidad de la Merindad de Durango  
 Tfnoa: 946 232 522  
 Laubidele kalea 6. 48200 DURANGO  
 www.mdurango.org

> **ATLETISMOA**

# Zornotzako emakumeek ere korrikalari izan gura dutelako

*Gu be bai runners* ekimena jaio da, lagunartean oinez eta arineketan ibiltzeko

> **MARKEL ONAINDIA**

Zapatilak eta kiroletako arropa jantzi, beroketa eta luzaketak egin, eta badoaz astiro-astiro arineketan. Zornotzako 50 bat emakume *Gu be bai runners* ekime-

nean batu dira, euren denbora librean korrika apur bat egiteko helburuz. Iraia García atleta zornotzarrak sustatu du egitasmoa, eta eguaztenean egin zuten aurkezpen publikoa Zelaieta

zentroan. Zelan ez, aurkezpenaren ostean ere izerdia botatzeko aprobetxatu zuten.

Bizkaiko kros txapelduna da García, eta Euskal Herri mailakoa ere izandakoa. Aspalditik

eduki du taldea sortzeko asmoa, baina martxoan hasi zen sarea antolatzen. Maila handiko korrikalaria izan arren, taldeko partaide edonor izan daiteke. Gainera, denek ez dute korrika egiten; batzuk oinez ibiltzen dira bakarrik, eta beste batzuek tartekatu egiten dituzte biak. Hori da, adibidez, Garciaren izekoren kasua, Amaia Olalde Bikandirena. Normalean oinez ibiltzen ei da, baina tarte batean korrika egiten du. Lobarri sarea antolatzen laguntzen hasi zen, baina jakinmina piztu zitzaion, eta gustura dabil orain.

**Modu entretenigarria**

Urteetan galdutako zaletasuna berreskuratu dute askok, eta ariketa fisikoa egiteko modu entretenigarri bat topatu dute beste askok. Honela zioen partaide batek: "Institutu sasoiatik ez dut korrika egin. Orain, eguaztena eta zapatua noiz helduko zain egoten naiz". Izan ere, asteko egun bi horietan elkartzen dira; eguaztenetan, 20:30ean, eta zapatuetan, 10:00etan. Kirolaren bueltan, lagun talde berri bat sortu da Zornotzan.

**ADITUAREN TXOKOA****Mikel Aranguren**

Futbola

**Umeak dira, ez izarrak**

Futbol denboraldia amaierara heldu da, eta berdin du aurretik jarritako helburuak lortu diren edo ez. Orain jokatzeko ari den partida beste bat da, datorren denboraldirako jokalaririk hoberenak eskuratzea, hain zuzen.

Azken egoera hori ez du gu futbol profesionalen edo amateurren bakarrik ikusten, baizik eta kategoria gazteak osatzen dituzten umeengan ere. Horiek hainbat entrenatzaileen eta koordinatzaileen deiak jasotzen dituzte aldi oro, eta beraien helburua ume eskuratzea da, beste gauza guztien gainetik. Hau da, berdin zaie beraien progresioa, testuingurua edota egoera pertsonala zein den. Gurasoei talde hobe batera joango direla esaten diete, nahiz eta hori ez izan beti erabakirik egokiena. Familiak, bai bere umea onena dela esateko, bai beraien egoarengatik, gaztearen iritzia alde batera utzita hartzen dituzte erabakiak, umearentzat onena hori dela argumentatuta.

Nire ustez, umearen zoriontasuna guztia gaineratik dago, eta garrantzitsuenak umeak disfrutatzea da, norekin eta non axola gabe. Azken aldi honetan, futbola uzten duten umeen kopuruak gora egin du; izan ere, hirugarren pertsona batek beraien orde erabakiak hartzen dituzte, ez daude gustura eta ez dute kirol honekin gozaten. Hortaz, gazteen kirol porrota gora egiten ari da.

## “Helburua emakumeek ariketa fisikoa egitea da, eta erlazionatzea ere bai”

Arineketan egiteko taldea aurkeztu du Garciak



Iraia García, eguazteneko aurkezpenean.

Iraia García (Zornotza, 1992) atletaren kirol ibilbidean esperientzia berri bat da 'Gu be bai runners' ekimena. Pozik dago orain arte edukitako harreragaz, eta gura duenak ateak zabalik dauzkala adierazi du. Kirolaz gainera, ikuspegi soziala ere badauka taldeak, azaldu duenez.

Taldea sortuta dago, baina oraindik ere eman daiteke izena, ezta? Zer egin behar da? Niri e-mail bat bidali, [iraiagarcia@hotmail.com](mailto:iraiagarcia@hotmail.com) helbidera. Ni gaz hartu-emanetan ipini, eta interesatuari esango nioke zein egunetan geratzen garen. Gainera, daukagun zortea da ez dela bakarrik *running* talde bat; hiru talde daukagu: batean ibili bakarrik egiten dira, beste batean ibili eta arineketan, eta hirugarrenean arineketan soilik.

Zerbait ordaindu behar al da taldean parte hartzeko? Ez, dohainik da. Ez dute ezer ordaintzen, eta nik ere ez dut

inondik kobratzen. Ez dauka diru-laguntzarik. Lagun talde bat gara.

**Zelan antolatzen zarete entrenatzeko?**

Jauregibarriako aparkalekuan geratzen gara beti. Talde bakoitzari esaten diot zer egin behar duen, eta hiru taldeekin joaten naiz tarteka. Ni arineketan bakarrik arituko nintzateke, baina horrela ez nituzke besteak ezagutuko. Azkenean, talde honen helburua emakumeek ariketa fisikoa egitea da, eta erlazionatzea ere bai. Ez bakarrik arineketan egitea.

**Eta, momentuz, zelako balorazioa egiten duzu?**

Nik hasieran uste baino balorazio hobea egin dezaket. Entrenamendu bakoitzaren ostean, taldekideek beti jarduten dute WhatsAppen "zein ondo irten den gaurkoa" eta horrelakoak idazten. Beraz, ni pozik. Izan ere, egiten duzun lana gustatzen zaiela ikusten duzu.

**hitz**  
liburudenda

**Mikel Etxaburu – “hodeiak zapatetan”**  
Maiatzak 30, barikua, 19:30-tan

Sarrera doan

HITZ LIBURUDENDA / Artekalea 14 / Durango / 946 810 776 / [info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)

**A. Urreta**  
podólogo

**Ainara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea  
48200 · DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

R.E.S. 21406



# ERROTARITXUENA DURANGO

## Errotaritxuena ren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdegunek eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

2 log. 204.000 €+BEZa }  
3 log. 268.000 €+BEZa } -tik aurrera



[www.solvias.es](http://www.solvias.es) Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)



**sukia** Zure etxean zaude  
Estás en tu casa

## &gt; PILOTA

# “Argi dut Estebanen aurka ezin naizela espekulatzera irten”

Ibai Zabalak Promozio mailako buruz buruko finalerdia jokatu du bihar Victor Estebanen aurka; arriskuak hartzen saiatuko dela adierazi du



Irabaziz gero, profesionaletan lehen finala jokatu luke buruz buru.

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Profesionaletan buruz buruko lehenengo finalerako sailkatu daiteke bihar Ibai Zabala (Berriz, 1987). Binaka badu Promozio mailako txapel bat, baina buruz buru aurrenekoz sailkatu da finalerdietarako, Miguel Merinori 22-14 irabazi ostean. Ondo ezagutzen duen Labrit pilotalekuan Victor Esteban izango du parez pare, Errioxako aurrelari bizia.

“Banuen final laurdenetako hesitxo hori gainditzeko gogoa”, dio berriztarak. Afizionatuetan zebilean, buruz burukoan nabarmendu egiten zen; baina, profesionaletan, orain arte “gauza bategatik edo beste bategatik ez dut nirea eman”. Azken urteetan buruz buru jokatzeko moduak izan duen aldaketak ere zerikusia izan duela dio; berarengan zein atzelari denengan.

Alde horretatik, final laurdenetan atzelari baten kontra jokatzeko mesede egin zion. Baina Victor Esteban aurrelaria da, eta airez asko sartzen den

horietakoa. Zabalak dio ausart jokatzeko saiatuko dela, saketik bertatik hasita: “Arriskuak hartuko ditut sakean. Argi dut ezin dudala espekulatzera irten. Gaur egun, aurrelari baten aurka espekulatzera irtenez gero, oso gaitza da irabaztea”. Partiduan garrantzitsua izango da arerioaren hutsuneak bilatzea: “Eskuma itzela du, eta sotamanoz zein boleaz oso ondo moldatzen da. Ahal dela, botez eta ez-kerragaz jokatu dezan saiatuko naiz. Berak deseroso jokatzera da helburua”.

Gaur egun, buruz buruko tanto asko azkarrak izaten dira, aurrelari asko airearen bila joaten direlako. Beraz, denbora gutxian hartu behar dira erabakiak: “Entrenamenduetan alderdi hori asko landu dugu: une konkretuetan erabaki egokiena hartzearena. Azken batean, pilotariak argi izan behar du jokatzeko patroia, baina partidu batean egoera ugariaren aurrean dago, eta prestatuta egon behar du egoera horiei aurre egiteko”. Horregatik, aurten entrenamenduetan behinena ez zen 22ra heltzea, gabezia eta egoera berezi horiek lantzea baino. Beste faktore bat esperientziarena da. Estebanek profesional mailako lehenengo txapelketa du, eta Zabalak hainbat urtetako esperientzia. Esperientzia hori bere onerako erabiltzen saiatuko da.

## &gt; FUTBOLA

## Athleticen ibilia den Joseba Arriaga fitxatu du Amorebietak

Amorebieta futbol taldeak oraintsu jakinarazi du Josue Atela izango dela hurrengo denboraldirako entrenatzaile berria –Ohorezko Mailan Somorrotrogaz igoera faserako sailkatu da–, eta, Joseba Arriaga fitxatu duela jakinarazi du asteon. Arriaga aurrelaria da, 31 urte ditu, eta Barakaldotik (Bigarren B Mailako taldea) dator. 2001etik 2005era Athleticen ibili zenetik talde askotan aritu da.

Aurten Amorebietan aritu diren Jon Larreategik, Miki Massanak eta Cristian Alberdik, aldiz, taldea utziko dute. Larreategi Barakaldora joango da; Massanak Zipreko Lehen Mailako AEK Larnaca taldean jokatu du, eta Cristian Alberdik futbola utziko du.

## &gt; Udako campusa

Amorebieta futbol taldeak antolatutako duen futbol campusean parte hartzeko izen-ematea hasi dute ekainaren 13ra arte. Aste bitan garatuko da: ekainaren 23tik 27ra eta ekainaren 30etik uztailaren 4ra. Informazio osoa jasotzeko: [www.tucampusdefutbol.com/](http://www.tucampusdefutbol.com/).

## &gt; FUTBOLA

## Iurretakok ezin goi mailako urtea biribildu

Denboraldi bikaina saririk gabe geratu da azkenean. Ohorezko Mailan Iurretakok ezin izan du Hirugarren Mailara igotzeko promoziorako sailkatu. Azken jardunaldian bere partidua irabazi, eta beste emaitza bi aldeko izan behar zituen, eta ez zen baldintzetako bat ere eman: Iurretakok 1-0 galdu zuen Gallartan, eta Erandiok 0-2 irabazi zuen Apurtuarteren aurka. Elorriok, aldiz, 3-0 irabazi zuen etxean Loiuren aurka.

## &gt; SASKIBALOAIA

## Tabirako Baquek aukerak izan ditu azken unera arte

Tabirako Baqué gizonen talde nagusiak EBA mailarako Lauko Finala jokatu zuen joan zen asteburuan, Arrasaten, eta finalerdian galdu egin zuen Mondragon Unibertsitatearen aurka: 69-73. Azken 33 segundoetara markagailuan aurretik heldu ziren, baina gipuzkoarren hiruko batek durangarren aukerak zapuztu zituen. Duda-mudako denboraldi hasiera baten ostean, egoerari buelta eman, eta maila handian amaitu dute liga.

## &gt; FUTBOLA

## Vulcano Eguna Otxandion Toquerogaz eta Koikiligaz

Futbol torneoko sari banaketan egongo dira bihar

Otxandioko Vulcano futbol taldeak futbolaren inguruko Vulcano Eguna antolatu du zapatu-rako. Egun osoko jaia antolatu dute askotariko torneo eta txapelketekin, eta laugarren aldia izango du txapelketa arrakastatsu honek. Irabazleek Mirandes taldeko Koikili Lertxundiren, Athleticeko Gaizka Toqueroren eta Bilbao Athleticeko Martin Bengoaren eskutik jasoko dituzte sariak.

Goizean, 09:45ean hasita, gazteen mailako futbol 7 torneoa jokatu dute Zelaietan. Benjaminurreko eta kimu mailetan hainbat talde lehiatuko dira; tartean, Vulcano.

15:00etan, herri bazkaria egingo dute Pasealekuan. 18:00etan, gaztetxoentzako futbolin erraldoia eta puzgarriak egongo dira plazan. Azkenik, 20:00etan, falta jaurtiketen txapelketa antolatuko dute plazan.

## &gt; PILOTA

## Elorriok abantaila hartu dio Iurretari herriartekoan

Bizkaiako Herriarteko Txapelketako joaneko jardunaldian Elorriok hiru partidutik bi –kadete eta nagusietakoa– irabazi zizkion Iurretari. Buelako jardunaldia gaur, 19:00etan, jokatu dute Elorrioren. Zornotzak, aldiz, joaneko hiru partidua irabazi ostean bisitatuko du Mungia, gaur, 19:00etan. Azkenik, Mallabiak ere alde atera dio Arrigorriagari: 2-1. Domekan, 11:30ean, Zaldibarko pilotalekuan jokatu dituzte buelta-kopartidua, eta ez Mallabian.

**4 eta... 100 urte bitartekoa bazara eta musika ikasi eta gozatzeko gogorik baduzu, erdu musika eskolara**

**matrikula-epea zabalik ekainaren 1etik 25ra**

**Matrikulazio lekua:** Musika Eskolako Idazkaritza  
